


BERRIGARA

89. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, apirilak 28



Txotxongiloak protagonista

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



Kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintza

ZORIONAK!!

Urtebete egin dugu zuen artean eta hori ospatzeko zozketa bat antolatu dugu. Gureganatzen direnen artean, erloju eta boligrafo eder bana zozketatuko ditugu. Bete ezazu beheko txartela eta zatoz gugana lehen bait lehen!!



Allianz  

ASEGURUAK

Agentea: Garbiñe Elorza Laspiur
Zurradero kalea, 4 behea BERGARA
Telefona: (943) 76 08 43 • Faxe: (943) 76 06 73

IZENA

ABIZENAK

HELBIDEA

TELEFONOA


Bete txartela eta ekarri lehen bait lehen Zurradero 4 behea

ARGALTZEKO

KILO horiek KENTZEKO

ERREMEDIO baten BILA zabilta?

BIDERIK ONENA...



ZURE pisua ZAINDUKO DUGU



ZURE osasuna ZAINDUKO DUGU

Biologo dietista. Dieta pertsonalizatuak.

HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Iñaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodríguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro

Unai Azkarate

Portadako argazkia:

Benito Cantero

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.900 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

GERMAN BEREZIBAR
Deba Garaiko
Mankomunitateko gerentea

- Zergatik sortu da borondatezko suhiltzaileen taldea?

- 1989 urtean Diputazioaren suteen amatatze, prebentzio eta salbamendu taldea sortu zenean aurreikusten zen jadanik profesional eta boluntarioen konbinaketa. Bestalde, aktuzioen %99 bi edo hiru profesionalekin konponzen zela ikusi zen, plantila oso gutxi erabiltzen zen. Mankomunitateak eta Diputazioak hitzarmen bat sinatu dugu boluntarioen talde hau aurrera eramateko eta aurrekontua 3,5 milioi pezeta ingurukoa da. Azpimarratu behar da boluntarioen lana guztiz altruista dela nahiz eta konpentsazio ekonomiko batzuk jaso. Bestalde, profesionalekin izandako pole-



mika gainditu da.

- Profesionalen lan berdina egin beharko dute?

- Bai. Orain 16 boluntario dira eta, nahiz eta lanean egon, 4 behintzat lokalizatuta egon beharko dira edozein momentutan etortzeko. Boluntarioen kopurua alda daiteke eta sartzen direnentzat formazio epe bat beharrezkoa da.

"Suhiltzaile profesionalekin izandako polemika gainditu dela uste dut"

E S A N
D U T E

"Udaletxei azoketan ahalik eta diru gutxien inbertitzea interesatzen zaie, nahiz eta badirudien orain Mendi Nekazaritzatik azoka horiek errekuperatzeko ahaleginak egin nahi direla. Dena den, udaletxeen jarrera hori hemengo merkatuaren egoeraren isla da, herrietan gero eta supermerkatu gehiago dagoen neurrian azoketara jende gutxiago doa eta. Abuztuan oso nabaria da jende falta hori eta prezio baxuetan supermerkatuei saltzera behartuta gaude".

TOMAS LARRAÑAGA
Lapatza baserrikoa
ARDATZA
ALDIZKARIA

"Industria egoera txarra pasatzen ari da eta horren eraginez diru gutxiago dago gero, geure produktuak erosteko".

IMANOL MURGIÓNDO
Aierdi
baserrikoa
ARDATZA
ALDIZKARIA

I T U R R I O N E T I K

23 urteko donostiar bat PPko alkategaia Udal Hauteskundeetarako

Fernando Bergarajauregi 23 urteko donostiarra izango da PPko zerrendaburua Bergarako Udal Hauteskundeetarako. Zerrendako bigarren tokia Javier Azurzak beteko du. Zerrendan ez dago bergararrik eta Bergarajauregik azaldu digunez, beraien asmoa zinetotzi bat lortzea da. PPko zerrendaburua Enpresaritzatik ikasketetan 3. mailan ari da Donostiako EHUKo fakultatean. Bergara ez du gehiegi ezagutzen baina egunotan gure herriari buruzko informazioa jasotzen ari da Gipuzkoako Diputazioan. Bestalde, Zutik! taldea ez da azkenean Udal Hauteskundeetara aurkeztuko.



CADENA PERPETUA

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.

Astelehena: 17.00, 19.30, 22.15.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LOS INMORTALES III

Larunbata: 17.00, 19.30.

Igandea: 11.30.



ANGIE

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ Oscarretarako 7 izendapen merezi izan zituen **Frank Darabont** zuzendariak, **Stephen King** idazlearen nobela batetan oinarrituta eginiko filme honek. **Andyk (Tim Robbins)** bizitza osorako kondena jasoko du hilketa bategatik eta kartzelan zaindarien zein gainontzeko presoan errespetoa irabazi beharko du. **Reden (Morgan Freeman)** laguntzaz itxaropenari eutsiko dio errugabea dela frogatzen saiatzen den bitartean...

▼▼ Publizitatean jasotzen denez, trilojiari amaiera ematen dion filma. Azken desafioa arriskutsuena omen da eta **Connor MacLeod (Christopher Lambert)** eta **Kane** izeneko aztiaren (**Mario Van Peebles**) arteko borroka aurkezten zaigu. Aurrekoetan bezala batek bakarrik eutsi ahal izango dio hilezkortasunari...

▼▼ **Geena Davis (El turista accidental, Thelma & Louise)** aktoreak protagonizatutako filmea. **Angie (Geena Davis)** haurdun geratuko da baina **Vinnie (James Gandolfini)** bere senargaiarekin ez ezkontzea erabakiko du. **Noe**ekin (**Stephen Rea**) amodio istorio bat izan ondoren, bere burua hobeto ezagutzeari ekingo dio...

Deiak

▼ **1936**an jaiotako bergarren anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Izen ematea (2.000 pezeta) Anxoni eta Eusebio II tabernetan.

▼ **1935**an jaiotako anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Ordubatean meza Santa Marinan eta bazkaria Lasa jatetxean. Izenematea 76 21 66, 76 10 72 eta 76 10 71 telefonoetan.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, 7etan, Seminarioko baxuetan.


▼ **Menopausia** tailerra maiatzaren 3tik aurrera Anbulategian.

▼ **ELA**ren Langilearen Eguna astelehenean Bilbon. Irteera 9.30etan Beheko Estaziotik. Argibideak 76 43 01 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 30:** Ogizun.

▼ **Astelehena 1:** Konde.



GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 28:** Estella/Amezua.

▼ **Larunbata 29:** Mozos/Ruiz.

▼ **Igandea 30:** Mozos/Morales.

▼ **Astelehena 1:** Camacho.

▼ **Asteartea 2:** Puy.

▼ **Asteazkena 3:** Guallar.

▼ **Osteguna 4:** Estella.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

Jaiak asteburuan auzoetan

Labegaraieta eta Elorregi auzoetako jaiak izango ditugu astebukarra honetan Bergaran. Labegaraietan bihar eguerdiko 12etan hasiko dira ohizko etxaflero jaurtiketa eta kanpai hotsarekin. Ondoren, poteo herrikoia iragarrita dago. Eguerdiko 12 t'erdietan marrazki lehiaketa izango da, 13.30etan berriz ere poteo herrikoia eta arratsaldeko 4retan XIX. Mus Txapelketa (izen-ematea orduerdi lehenago itxiko da Zabala tabernan), 5etan Tirolina jaitsiera (eguraldiaren arabera), 6etan umeentzako jolasak eta buruhaundiak, poteo herrikoia 8etan eta gaueko 11etan rock jaialdia MCD, Ehun kilo eta Beer Mosh taldeen eskutik. Kontzerturako sarrera doan izango da. Amaitzeko, goizeko 5etan, galtzontzilo eta kulero lasterketa jokatu-ko da.

Igandean, goizeko 9etan Labegaraietako XXXIII. Txirrindulari lasterketa hasiko da. Eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren salda banatuko da bildutakoen artean. Arratsaldeko 6etarako umeentzako jolasak eta buruhaundiak iragarri dira eta jarraian txokolatada guztientzat, 8etan

Labegaraieta eta Elorregin era askotako ekitaldiak antolatu dira egun hauetarako



Ehun Kilo taldekoak Labegaraietan izango dira larunbat gauean.

poteo herrikoia eta 10etan Iosu eta Iokin trikitalariek alaitutako II. auzo afaria.

Bukatzeko, astelehenean, maiatzak 1, goizeko 10etan diana txistulariekin, Meza Nagusia 11.30etan eta ondoren Jubilatuetako abesbatza-

ren emanaldia. Abesbatzak ondoko abestiak eskeiniko ditu: Gure agurra (Carlos Elorza), En busca del helecho (L. Elizalde), Martxaren orpotik dator (S. Larrañaga), Maitia nun zira? (L. Elizalde), Vive tutte le vezze (F. Giardini), Binbili bonbo-

lo (A. Cobo), Since Robin Hood (T. Weelkes), Etorriko dek (A. Zubimendi), Lekeitioko kalean (A. Zubimendi) eta Gure aite (Rimski-Korsakov). Ondoren, ordubatean, txorizo, salda eta dantzariak eta 14.30etan jaien amaiera etxaflero jaurtiketarekin.

Elorregin ere jaiak

Elorregin, berriz, gaur, San Prudentzio egunerako, Meza Santua iragarri da arratsaldeko 7etarako. Ondoren Irukote Gaztea soinu-joleen saioa izango da. Bihar eguerdiko ordubietan auzo bazkaria eta Maialen Lujanbio eta Angel Mari Peñagarikano bertsolarien saioa egongo da. Mendia eta Erribera jota kantariak ere arituko dira giroa alaitzen eta bukatzeko, igandean, goizeko 11etan Meza Santua eta ondoren Elorregiko beteranoen pelota txapelketako finalak jokatu-ko dira. Ondoren, Moises Aspiazu taldearen dantza saioa eta trikitiba izango dira Elorregi auzoan.

Maialen Lujanbio eta Angel Mari Peñagarikano izango dira Elorregin zapatuan

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

KONDE

**P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Maiatzaren 1a

109 urte igaro dira garai hartako langile-erakundeek langilearen eguna izen-datu zutela. San Francisco herrian lan ordu kopurua, egunean 15-16 ordu lan egitearen aurka eta 8 orduko lanjardunak eskatzearen San Francisco herrian poliziek hil zituzten langileen oroitzapenez. 109 urte geroago krisi ekonomikoan murgilduta gaude, sistema irrazional baten, kapitalismoaren ondorioz.

Krisi egoera hau gainditzeko, kapitalak gehiengoaren, herrien eta langileen bizi eta lan baldintzak txartu nahi ditu. Langabezia, oso segurantzak gutxiko lanpostuak, gero eta ekonomia murgilduagoa... lan egiten dutenentzat egunetik egunera lan baldintza eskasagoak dira. Hemen, Deba Garaian, langabetuen egoera aztertu du Egailanek (Eusko Jaurkitzaileen Lan eta Gizarte Segurantzza Sailekoa) eta honako datuak ematen ditu:

- Langabetuak: 6.100 Enplegu Bulegoan izena emanda daudenen bikoitza.
- 3600 emakumeak dira eta 2500 gizakumeak
- 16-24 urtekoak: langabetuen %52a.
- Bi urte baino gehiago lan bila dabilzanak langabetuen %45a.
- Ezer kobratu gabe: langabetuen %52a.

- Bere lehen enplegua izan gabe %52'38a.

Horrez gain enplegu suntsipena, lan-tegi barnean inolako oposizioarik gabe, aurre-jubilazioaren edo baja inzentibatuaren bidez, egunez-egun haundituz doa, eta enplegu berriak oso gutxi sortzen dira. Askoz ere errezagoa da, eta irrazionalagoa ere bai, ehundaka miloi lanpostuak suntsitzeko erabiltzea lanpostuak mantentzeko baino.

Bestetik, lan-tegi askotan, azkenengo hilabetetan lan gehiago dagoenez, langile asko ehundaka ordu extra sartzen ari dira, ordu extrak kotizatu gabe; ondorioz, insolidarioak. Gaur egun, belaunaldi berrientzako, enplegurik onena galtzen ez dena da. Lan orduak gutxitzea, lana banatzea, ordu extrak ez sartzea. Horregatik maiatzaren 1ean langileok elkartasuna aldarrikatu behar dugu mixerian daudenekin.

Beharrezkoak dira mobilizazio solidarioak berdintasunaren bidea jorratzeko, langabezia, lana eta aberastasuna berdin eta egoki ez banatzearen ondorioa delako.

JUAN JOSE AZKARATE
DEBA BAILARAKO LANGILE
KOMISIOAK CCOO


Bizi-asegururak

Kontuz! Etxebizitza bat erosteko prestamoa Kutxari eskatzen diozuenean Bizi-asegurua ere egitea aholkatuko dizuete tramiteen bukaeran eta, horrela, jakinaraztean aseguruak saltzen dizuete erostera behartuz. Nire esperientzia amorragarria izan da eta halako negozio lotsagabea ikusita ezin izan naiz isilik geratu (bizi-asegurua ez da beharrezkoa).

MARI KONTXI GARAIONDO


Tiira biraka

Posta bidezko CCC pilotu kurtsoa egin nuen eta orain konbaterako pilotua naiz.



**BAINA PEDROK TRANPA
EGIN ZUEN ETA EZ ZUEN
AZKEN FAZIKULUA EROSI
DIRUA AURRERATZEARREN.
GARESTI SAMAR ORDAINDU
ZUEN HURA, MISIO BATEN
BOTA BAITZUTEN IKASGAIA
EZ ZEKIELAKO.
ORAIN BIZI OSORAKO
KONDENATUTA DAGO
SIBERIAN.**

... Baina oraindik ere gureganako konfidantza du.



◆ **HBren oharra**

HBk korreozko botoa egiteko epea zabalik dagoela jakinarazten du. Argibideak Arrano Elkartean (Irizar Ibilbidea 2, 2.D) edota 76 25 74 telefonoan astelehenetik ostiralera 17.00etatik 20.00etara.

◆ **Kikaundi**

Kikaundik OHoko haurrei zuzendutako udalekuak antolatu ditu uztailaren 3tik 21era bitartean. Izen-ematea (3.000 pta.) maiatzaren 10era arte egongo da zabalik Kikaundi Ludotekan.

◆ **Bideoa**

Bihar 11etan, JARDUNek antolatuta, "Gremlins" bideoa emango da Kultur Etxean haurrentzat.

JAIOTAKOAK

P. Xabier Iñurrieta Odriozola

Apirilak 15

Miren Azkarate Urrutia

Apirilak 16

Ainhoa Mujika Azpiazu

Apirilak 18

Ainhoa Etxeberria Olabarria

Apirilak 19

HILDAKOAK

Martin Manzanal García

Apirilak 23, 89 urte

Ignacio Balzategi Salaberria

Apirilak 23, 71 urte

María Vega Biziola Velasco

Apirilak 24, 55 urte

Mari Tere Etxeberria Jauregi

Apirilak 24, 55 urte

San Anton ermita babesteko alegazioa onartu zen Plenoan

Maltzaga-Urbina autopista ondotik pasako litzateke

Ostiraleko ez-ohizko Plenoan, Xabier Aranburu udal museologoak, Maltzaga-Urbina autopista dela eta, San Anton ermitaren inguruan aurkeztutako alegazio bat onartu zen. Autopistaren aurreproiektuan jasotzen denez, autopista ermitaren gainetik pasako litzateke eta peaje bat bertan kokatuko litzateke. Aranbururen txostenaren arabera, San Anton ermitaren antzinatasuna gutxienik XVI. mendean finkatu behar da eta bere balio artistikoarekin batera guztiz bizirik dagoen erakuntza dela aipatzen du Aranburuk. Arrazoi historiko, artistiko eta sozialak kontutan izanik zera proposatzen du Aranburuk: ermita kaltetua ez izateko autopistaren gurutzunea aurrikusitakoa baino iparralderago, hegoalderago edo sortalderago egin daitekeen aztertu, gurutzunea lekutik aldatzea ezinezkoa bada ermita auzokideek proposatutako eta Udalak onartutako gertueneko leku egokienera eramatea, ermita lekuz aldatzen bada aktuazio arkeologikoa egitea ermitaren hilerria aztertu eta dokumentatu ahal izateko eta, azkenik, ermi-



San Anton ermita gutxienik XVI. mendekoa da.

ta bertara eramateko beharrezkoak diren obra-lanak egitea. EAJk, PSE-EEK eta EAK alegazioaren aldeko botoa eman zuten eta HB abstenitu egin zen autopistaren kontra dagoelako.

Udaleko soldatak

Bestalde, udal langileen soldata %3,5ean igotzea onartu zen. EAJ eta PSE-EEK igoeraren alde botatu zuten eta HB eta EA abstenitu egin ziren. Alkateak adierazi zuenez edozein akordio indibidual galeraztea eta igoera %3,5etik ez pasatzea ziren helburu nagusiak. Botoaren azalpena ematera-

koan, Jesus Mari Garitanok (HB) adierazi zuen bere alderdiak presupuestoa ez zuela onartu eta Udaleko Enpresa Komiteak kalera-tutako idatziarekin ados daudela. Aipatutako idatzian Enpresa Komiteak negoziazio gune bezala ARCEPAFE edo EUFALEBA (Udal eta Foru Administrazioiko Langileen Hitzarmena) aldarrikatzen du. Era berean negoziazio kolektiborako dagoen esku-bidea gutxiestea eta igoera inposaketa hutsa dela salatzen du. Bestalde, Juan Mari Garitanok (EA) gogoratu zuen beraiek ere udal aurrekontuari ezetza eman ziotela.



PINTURAS BERGARA

**P
B**

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
 • APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

◆ Bedelkar

Bedelkarrek "Eskaparatismo I. maila" ikastaroa iragarri du maiatzaren 8tik aurrera, astelehenetik ostiralera 14.30etatik 16.30etara. Bestalde, ekanean honako ikastaro hauek emango dira: "Gestión comercial básica" (10 ordu) eta "Gestión comercial informatizada" (20 ordu). Izen-ematea eta argibideak 76 04 68 telefonoan.

◆ Gestoren oharra

Gestorek maiatzaren 6an Parisera martxa antolatu dute. Irteera maiatzaren 5ean arratsaldeko 8etan izango da Beheko Estaziotik eta izen-ematea Pol-Pol eta Arrano tabernetan egin daiteke.

◆ 87 urtekoei omenaldia

Igandean, apirilak 30, 87 urteko bergararrei omenaldia egingo zaie Jubilatuetan. Goizeko 11etan meza izango da San Pedron eta 12.15etan Jubilatuen abesbatzaren emanaldia Aitonetan. Ondoren luntxa eta omendutakoei opari banaketa, jarraian txistorra eta azkenik Elgetako trikitilarien saioa.

◆ Ikasleen gurasoei deia

Datorren ikasturteari begira Miguel Altuna eta Ipintza institutuek eskeiniko dituzten ikasketen berri emateko bilera izango da asteazkenean 7etan Ipintza Institutuan. Mariaren Lagundian eta Aranzadi Ikastolan OHoko 8. mailan matrikulaturik dauden ikasleen gurasoei bertan parte hartzeko deia egiten zaie. Bilera amaitu ondoren datorren kurtsoan martxan jarriko den ikastetxe berriaren bisitaldia egingo da.

Elisabeth Payros, Euskara Hitzarmeneko teknikaria:

"Hainbat talde euskara hutsez jardutera pasatu dira"

Pasa den apirilaren 8an herriko 22 talde orain 3 urte martxan jarritako Euskara Hitzarmenera gehitu ziren. Eli Payros Hitzarmeneko teknikariak 3 urte hauetan egindako lana eta etorkizunerako asmoen balorazioa egin digu.


- Zer nolako eragina izan du Hitzarmenak orain arte?

- Hitzarmena elkarte ezberdinen funtzionamendua, beraien arteko harremanak eta ikasleen eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izateko asmoz jarri zen martxan eta zentzu horretan aurrerapausu handia eman da. Zenbait taldek %100ean aldatu dutela esan daiteke, gaztelera hutsean funtzionatzen euskaraz egitera hain zuzen. Beste batzuk ordea moteltxoago ibili dira baina orokorrean balorazio positiboa egiten dugu. Nahiz eta orain 5 taldek hitzarmena utzi, 22 talde berri sartu dira.

- Hasierako helbururen artean bete ez denik badago?

- Bueno, hitzarmenaren puntu batetan taldeetako zuzendaritza batzordeak jende euskaldunetz osatzeko beharra jasotzen zen baina zuzendaritza batzorderako jendea topatzeko izaten diren zailtasunak kontutan izanik, ez dugu puntu horretan gehiegi insistidu.

- Nobedaderik badago oraingo hitzarmenean?



"Idatzizko harremanetan aurreratu da"

- Aurrekoan 11-12 urtez azpiko haurrentzat eskolaz kanpo antolatzen ziren ekintzak euskaraz izatea jasotzen zen eta ikasturtez ikasturte urtebete igotzen zen adina. Oraingo hitzarmenaren bukaeran 16-17 urtera arte bete beharko litzateke puntu hori baina OHora arte mantentzea erabaki dugu gaur egun oraindik irakasle edota entrenatzaile erdaldun batzuk daudelako.

- Zein mailatan eman da aurrerakuntza haundiena?

- Idatzizko harremanetan danetan eman da aurrerakuntza. Taldeen txostenak, kartelak eta gainontzeko idatzizko informazioa kontrolatuz gero, %96 inguruan betetzen da hitzarmena. Ahozkoetan, berriz, asko aurreratu da entrenatzaile eta irakasle euskaldunak topatzean baina B erduko ikasleen arteko harremanetan azpiko arazo bat ikusten da eta beraien artean euskara bultzatzeko programak bultzatu nahi ditugu.

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz


Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

ZABALA

JATETXEAK jai zoriontsuak opa dizkizue.

Ibarra kalea, 14 ☎ 76 20 07 • 76 42 57



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



"EZ DUZU EZER HOBETO IKUSIKO"




VARILUX LENTE PROGRESIBOAK

**HURBILEKO NAHIZ URRUNEKO,
IKUSMEN EZINOBEA**

Lente progresiboetako teknologia aitzindaria espezialista onenek zeuri egokitua.

Zure ikusmena edozein distantziara ezinobea izateko.

Berme onenarekin. Aitzindariarenarekin. Varilux. Ez duzu ezer hobeto ikusiko.



90 egunetarako geroratutako ordaintza-sistema, errekargurik gabea, gure kreditu-txartel bereziarekin.



BERMEAREKIN:

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • **ARRASATE**

Ibargaray, 16 • **BERGARA**

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • **ORDIZIA**

30, 60 edota 90 egunetara ordaintzeko aukera. Errekargurik gabe!!

Gaia landuz.....

Triiiiiin. Goizeko zazpiak dira iratzargailuan. Mekaguen la letxe, orain eskolara Bergarara (Mokolandiara) joan behar.

Amaren deiadarra berandu nihoala esanez:

- Mobidu, betiko moduan berandu...

Etxetik korrika irten behar zazpi t'erdietan autobusa hartzeko, autobus barruan daudenak "itxo-in" esaten dute eta ni, bitartean, korrika noa autobuserantz liburuak txintxilik ditudalarik. Autobusean sartu eta betiko musika higuigarria: txunba-txunba...

Bergarara heltzean, zortziak laurden gutxi aldean, eskolara iritsi eta klaseak hasteko ordu laurden itxaron behar gainera.

Sei ordu klaseko txapada entzun ondoren, txirrina jo eta oraindik maixuak azalpena ezin bukatu. Batzuetan autobusera korrika joan behar eta ihes egiten du, "qué putada", eta beste batzuetan orduerdi itxaroten egon behar, gainera autobus batzu egoera txarrean egoten dira, jarlekuak falta zaizkie, atea ez da zabaltzen e.a. eta ezin protestatu. Etxera iritsi orduko hirurak eta laurden, gosea pasata eta arratsalde gutzia debereekin okupatuta.

Horrela normalean baina huelgaren bat edo

Que jodida!! berriz ere Mokolandiara...

orduren bat libre izanez gero, etxera joan nahi izanda ere lineako autobusari itxaron behar, herri batzuetara ez dagoela

eta Antzuolara 3.775 pzta. Eta beste batzu kotxeetan ibili behar dira ez dutelako autobusik.

Herri txikietan bizi

bezala gu Bergaratik kanpo bizi garen pertsonak gara, Soraluze, Osintxu eta Antzuolakoak hain zuzen ere eta kontatzen



Asko dira egunero auzoetatik edota inguruko herrietatik eskolara autobusean datozenak.

ko komunikazio onik.

Hau gutxi balitz, hilean gutxi gora behera 6.000 p z t a . pagatu behar

dira. Adibidez, Soraluze 5.600, Osintxura 3.500

ezkero, partikularretara edo beste jardunaldi batzuetara Bergarara joan behar dugu eta g a s t u a bikoiztu

egiten da. Konturatuko zineten

"Hezkuntza silburuari eskatzen diogu auzoetatik autobusak doan jartzea"

dizueguna guri urte gutzian gertatzen zaiguna da.

Hezkuntza sailburuari zera eskatzen diogu: herri bakoitzean institutu bat egon dadila; eta hori ez bada posible, herrietatik edo urrun dauden auzoetatik autobusak doan jartzea. Ez da, bada, asko eskatzea.

.....9 galdera motz

Miguel Altuna ikastetxeko atezainak 34 urte ditu, gazteiztarra da eta Historian Lizentziatua



Amaia Pascual atezaina

1 Noiztik Miguel Altuna Institutuan?

Bi urte t'erdi daramatzat.

2 Nola hasi zinen lan honetan?

Lehengo lana ondoratu egin zen, eta beraz...

3 Ikasten ari zinela zure ideia hau al zen?

Eeeez! Inola ere ez!!

4 Zein da zure betebeharra eskolan?

Lan asko: fotokopiak atera, errekadutxoak egin...

5 Emakume bat zure lanean ikustean?

Jendea ez dut uste harritzen denik, ez dakit...

6 Ikasle onak al gara?

Bai, jatorrak.

7 Esperientzia interesgarria izan al da?

Gauza berriak ikasi ditut, baina ez hain ona.

8 Aholkatuko al zenioke norbaiti lan hau?

Bai, baina langabezian balego.

9 Pasadizu dibertigarriren bat?

Paper biltegia mutilen komunean dago, beraz...

Txisteak



Mertxe Laskurain 46 urte

TARZAN ETA TXITA

Tarzanek esaten dio Txitari:

- Angaua Txita, angaua!!

Eta erantzuten dio Txitak:

- Bai, han gaua eta hemen, berriz, eguna.

EIBARTARRAK ETA PLAENTXIARRAK

Plaentxiar bati eibartar batek:

- Txikiteoan egiten al duzue zuek?

- Bai, baina batzuetan bakarrik.

Eta eibartarrak:

- Hik zer uste duk ba, guk pitxarretik edaten dugula ala?

.Jolasean.....

**Ezetz
asmatu
nor den?**

ERANTZUNA: Aritz Berraondo



Lan egin nahi eta ezin

Mariaje Unamuno udaleko enplegu teknikaria:

"Lana aurkitzeko askotan benetako gogoa eta borondatea izan behar du norberak"

Bergaran azken urtebetean langabezia jeitsi egin da. Azken datuen arabera, 71 langabetu gutxiago dago. Mariaje Unamunok, udaleko lan teknikariak, langabetuen egoeraz eta hauek dituzten laguntzez hitz egin digu.

Langabeziak Bergaran gora ala behi-
ra egin du?

- Jeitsi egin da. Iazko otsailean INEMen esanetan, 701 langabetu zeuden, EUSTATen arabera, berriz, 998 (kopurua desberdina da, INEMera izen ematera norberak joan behar duelako; EUSTATEk, etxez-etxe inkesta egiten du, beraz, EUSTATen kopurua handiagoa da). Aurten, ordea, urtarileko azken datuek diote 630 langabetu daudela. Beraz, langabezia jeitsi egin da.

- Beste herrietan baino gehiago ala gutxiago dago?

- Arrasaten, esaterako, gehiago dago eta herri txikietan, Antzuolan eta gutxiago.

- Langabetu gehien zein jenderen artean dago?

- Gazte eta emakumezkoen artean dago kopururik handiena. Bergaran 630 langabetutik 402 (%63'8) emakumezkoak dira eta 228 (%36) gizo-

nezkoak. Adinari dagokionez, langabeturik gehienak 20-30 urtekoak dira (%43'6)

- Ikasketen eta lanbidearen arabera zeintzuk dira zigortuenak?

- Ikasketei dagokionez, eskola ziurtagiria, OHO eta FP2ko ikasleak; lanbideari dagokionez,

langabetu gehienak profesionalak, teknikoak eta peoiak dira.

- Lehen lanpostua aurkitu ezin dutenak asko al dira?

- 55 (%21'4). Zailena lehen lana lortzea da. Zirkulu bat da: lanean has-teko eskarmentua eskatzen dute, baina inork aukerarik ematen ez badu ezin da esperientziarik izan, eta lana aurkitzeko atea itxi egiten dira.

- Zein langabeturen egoera da larriena?

- 40-60 urteko langabetuarena, duen adinagatik; eta peontzan dabile-

narena, prestakuntzarik ez duelako.

- Langabetuaren arazorik handiena zein da?

- Horixe, lanik ez izatea, baina ondorioz beste arazo gogor batzuk ere ekartzen ditu: margina-zioa...

- Langabetuak udalean zein laguntza jaso dezake?

- Alde batetik ikastaroak egiteko aukera du, baita Arrisku soldata programan sartzekoa ere; bestetik kontratuak nola egin, dirulaguntzak nola jaso... era horretako informazioa ere ematen da.

- Ikastaroek INEMekoekin badute zerikusirik?


- Ez. INEMen datuak, herrian zein behar dagoen ikusteko erabiltzen dira eta behar horien arabera ikastaroak antolatzen ditugu.

- Zer erakusten da ikastaroetan?


- Oro har, eskoletan eta hezkuntza erregulazio erakusten ez dena: jostakuntza, igeltsaritza, mintegiak, aisialdia, gasari buruzko ikastaroak...

- Nolakoak dira ikastaroak?

- Heziketa okupazionalako ikastaroak 18 urtetik gorako herritarrentzat dira, 6-8 hilabetekoak.



40-60 urteko langabetuena da arazorik larriena. ARTXIBOA.



Formazioa behar-beharrezkoa da lehen lana topatzerako orduan.

Ikastaroa egin ostean, enpresetan praktikak egiten dira eta asko lanean hasen dira. Lanbide hastapeneko ikastaroak, berriz, bailara mailan antolatzen dira eta gazteagoentzat, 16-17 urtekoentzat izaten dira.

- Ikastaroek zerbaiterako balio dute?

- Emaizta onak eman dituzte. Ikastaroei esker jendeak lanbide bat ikasten du eta lan munduan sartzea lortzen du.

- Zer da Lantegi eskola?

- INEMen programa bat: hau ere bailara mailakoa, baina 3 urtekoa, eta 18 urtetik gorakoentzat. Elektrizitatea, arotzeria, lorazaintza, e.a. ikasten dira. Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek soldata kobratzen dute.

- Ikastaroez gain, Arrisku soldata programa ere badago.

- Jendea lanera bultza-

tzeko da. Ideiak aurkezteko lehiaketa ateratzen da, aukeratutako ideiekin promotorak kontratatzen dira eta promotorei ideiak aztertu eta martxan jartzeko laguntza ematen zaie. Programa hau dela eta gas enpresa bat sortu da, beira lantzen duena ere bai, eskulan ikastaroak antolatzen dituena... Gehienetan, arrisku soldata programan aurretik ikastaroetan ibilitako jendea sartzen da.

- Langabetu asko etortzen da laguntza eske?

- Gehienak lanbide heziketa arloko ikasketak egindakoak dira; prestakuntzarik gabekoak ere etortzen dira. Oro har, zein ikastaro eta laguntza dagoen galdetzeraz datoz.

- Zuk zein aholku ematen diezu?

- Inolako ikasketarik izan ezean ikasteko, prestatzeko. Ikasketak ditue-

"Ikasketak dituen langabetuari esango nioke etxean ez geratzeko, prestatzen jarraituz gero, lana topatzen da"

nari, berriz, etxean ez geratzeko, mugitzeko. Lanik ez dagoela esan eta etxean ezin da geratu. Kasu guztiak desberdinak dira eta ezin da generalizatu, baina prestatzen, ikasten jarraituz gero lana aurki-

tzen da. Hasieran kobratu gabeko lanak egin behar dira, beharbada egoera onekoak ez direnak, baina horrela hasten da. Nire ustez, lana aurkitzeko askotan norberak benetako gogoia izatea falta da.

LANGABEZIA BERGARAN. Guztira: 630

ADINAREN ARABERA

20-29 urte bitartean	300	%48
30-39 urte bitartean	178	%28
40-49 urte bitartean	67	%10
50-59 urte bitartean	36	%5
60 urtetik gorakoak	5	%0,7

SEXUAREN ARABERA

Gizonezkoak	228	%36
Emakumezkoak	402	%63

IKASKETEN ARABERA

Eskola ziurtagiria	182	%29
OHO (EGB)	155	%24
LH 2 (FP 2)	90	%14

LANBIDEAREN ARABERA

Profesionalak, teknikoak	161	%25
Peoiak	133	%21
Administrariak	91	%14
Zerbitzuetakoak	92	%14

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lentzeria

**Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Helduentzako txotxongiloak nonahi

Nazioarteko, estatuko eta Euskal Herriko txotxongiloak ikusgai astebukaeran

Atzo hasi eta igandera bitartean, toki ugaritako txotxongiloak ikusteko aukera izango dugu.

Taun-Taunek txotxongiloen hiru-garren mostra honetarako osatu duen egitarauan hainbat teknika erabiliz landutako tankera ezberdineko txotxongilo ikuskizunak ikusteko aukera izango dugu herriko zenbait antzokitan eta kalean. Emanaldi batzutarako sarrera ordaindu beharko den arren, beste batzuk doan izango dira.

Beraz, atzo eman zitaion hasiera montrari Juan Martin Elexpuruk irakurritako pregoiarekin, eta domekara arte, txotxongiloak izango dira protagonista Bergaran.



Kubako txotxongiloen erakusketa Kultur Etxean

EGITARAUA

Apirilak 28, OSTIRALA

10.00:	<i>Poemes audio-visuals</i>	Jordi Beltran	Mariaren lagundia
12.00:	<i>Poemes audio-visuals</i>	Jordi Beltran	Mariaren lagundia
13.00:	<i>Concertino</i>	Marionetas del matadero	San Martin plaza
17.00:	<i>Concertino</i>	Marionetas del matadero	Fraiskozuri plaza
20.00:	<i>Trans</i>	Etcetera	Zabalotegiko aretoa
23.00:	<i>Soberanos problemas</i>	El Tenderete	Pol-Pol taberna
00.30:	<i>Tauromaquia</i>	Marionetas del matadero	Gartzela zaharra
01.00:	<i>Musika saioa</i>	Fran Iturbe & Javi Botanz	Gartzela zaharra

Apirilak 29, LARUNBATA

13.00:	<i>Cinemarionette</i>	Daniel Raffel	San martin plaza
17.00:	<i>Cinemarionette</i>	Daniel Rafell	Fraiskozuri plaza
20.00:	<i>One more kiss</i>	Claudio Cinelli	Zabalotegiko aretoa
23.00:	<i>El gato con botas</i>	La maleta de Mariano	Pol-Pol taberna
00.30:	<i>Cuentos de tradición ind.</i>	Saltimbanqui	Gartzela zaharra

Apirilak 30, IGANDEA

20.00:	<i>Poemes audio-visuals</i>	Jordi Beltran	Zabalotegiko aretoa
21.00:	<i>Suaren garaia</i>	Goloka	San Martin plaza
23.30:	<i>Teatre de partout</i>	Bululu	Gartzela zaharra
00.30:	<i>Bideo emanaldia</i>	Auftin FX4	Gartzela zaharra
00.45:	<i>Musika saioa</i>	Xabier Labaien	Gartzela zaharra

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA

GARAIA

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Juan Ignacio MONTIANO Doktorea

Pediatra

San Martin Osasundegia

Ramon Maria Lili, 2 ☎ 76 59 39

Hezkuntza

Kalitatea hezkuntzan

- Nola neurtu izan da kalitatea hezkuntzan?

- Heziketa sistemaren edo, zehazkiago ikastetxe baten kalitate adierazle bezala ikasleen maitzak hartu izan dira sarri eta, sarriegi agian, kalitate adierazle hori emaitza akademikotara mugatzen da soilik.

- Enpresa kalitatearekin zein ezberdintasun dago?

- Enpresa munduan kalitate sistema baten ezarpenak bukaerako produktoaren kalitatea ziurtatzea omen dauka helburutzat. Helburu hau heziketa eremura eramanez, eskolaren lehengai pertsona-ikasleak direla gogoan izanik, "produktoa" heziketa edo formakuntza prozesuan zehar ikasleak irabazten duena izango litzateke edo, beste modu batean esanda, heziketa ikasleari erantzen dion balioa da eskolan kalitate adierazle bezala hartuko genukeena. Erantsitako baliō hori neurtzeko ikasleak bereganatu dituen baloreak, garatu dituen trebetasunak, bere buruarekiko gehitutako konfidantza, garapen pertsonala, autonomia, jasotako esperientzia eta ezagupenak eta

gizartean era aktibo baten integratzeko gaitasuna hartu beharko ditugu kontutan.

- Ikasleak denak ez dira berdinak...

- Kalitatezko eskola aniztasunari kontu egiteko gai dena izango litzateke, ikasle bakoitzarengana hurbildu eta aurrerantzean eta hobetzen lagunduko diona, giza eremuan, ore-



ANDONI ETXEBERRIA

(Hezitzailea)

ka pertsonalean eta adimenaren alorrean ikasle bakoitzaren garapen orokorra bultzatuz.

- Zeintzuk dira, beraz, kalitatezko eskolaren ezaugarriak?

- Ikastetxeak bere nor-

tasun ezaugarrietan eta helburuetan oinarriturik autonomia handienarekin jokatzea, ikastetxeak ingurura irekita egon behar du eta gurasoek ere ikastetxearen hezkuntza ihardueran lagundu egin behar dute. Bestalde, ikasteko giro egokia bultzatu behar da, denon partetik asumitutako arau eta xede argiekin konpromezua hartuz.

- Zeintzuk dira irakaslegoaren eta zuzendaritzaren betebeharrak?

- Irakaslego taldean egonkortasuna eman behar da, etengabeko prestakuntza, baliabideak eta lan baldintza egokiak zaindu behar direlarik. Irakasleek taldean egin behar dute lana, planifikazioan kolaboratu, erabakietan parte hartu, berrikuntzekin konprometitu eta norbere lanaren ebaluazioaren erantzunkizuna hartu.

Era berean, zuzendaritza eta gestio organu efikazak egon behar dute, programazioa arduraz handiz planifikatu behar da eskolak bereak dituen baloreak kontenplatu, ikasleengan era guztietako gaitasunen garapena bermatuz, prozesuari balioak erantzen ez diona eliminatuz eta etengabeko ebaluaketa egin ahal izateko adierazleak txertatuz. Eskolak administrazioaren laguntza jaso behar du lehen aipatutako ezaugarriak emateko.

"Hezkuntzaren kalitate adierazle bezala sarriegi erabili izan dira emaitza akademikoak"



Hezkuntza kalitatea lortzeko ikasteko giro egokia bultzatu behar da.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62




Liburuaren Eguna ospatu berri dela eta, zein da irakurri duzun azken liburua?




Mila Larrañaga
31 urte, langabetua

Ba egia esan ez dut gogoratzten. Askok gustatzen zait irakurtzea baina, denbora faltagatik batipat, azkenaldian ez dut libururik irakurri.



Itziar Andueza
48 urte, etxeoandrea

Pepe Reiren *El jesuita*. Ez dut asko irakurtzen. Udan adibidez, denbora gehiago edukitzen dudanez, neguan baino gehiago irakurtzen dut.



Felipe Muñoz
61 urte, jubilatua

Gironellaren *Escándalo en Tierra Santa*. Dena den, liburuak baino egunkariak irakurtzeko ohitura gehiago daukat.



Luis Azkarate
32 urte, langilea

Ez dut batere irakurtzen. Egunkarietako letra haundiak, besterik ez. Ez naiz irakurzalea, libururik ez dut sekula irakurri.



Justo Javier Rodríguez
34 urte, langilea

Oso gutxi irakurtzen dut. Orain dela urte asko irakurri nuen azkena, ez daukat irakurtzeko interèsik.



Marian Markiegi
27 urte, langilea

Ba Gabonetan irakurri nuen *Tomates verdes fritos*. Baina ez dut gehiegi irakurtzen, ez zait gehiegi gustatzen.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



"Excesos"

Argentinako berriak berriro lehenengo orrialdeetan. Zuek bezala, hemengo komunikabideek kaleratutakoa besterik ez dakit. Ez dakit ze pasatzen ari den hango militarrekin. Duela hila-bete batzuk itsas-armadako ofizial batek idazle batengana jo zuen berak ikusi eta egindakoa, eta berak zekiena kontatzera.

Herenegun, lehorreko armadako buruzagiak (dirudienez bere kideekin eta Menem lehendakariarekin kontsultatu gabe) onartu zuen 1976tik 1983ra bitartean bahitu, torturatu, erahil eta bizirik itsasora bota zutela hainbat eta hainbat "terrorista". Baita izen zerrrenda berregiteko eta kaleratzeko prest daudela ere.

Txikitan amarengandik ikasitakoak ("alabatxo, ez zaitez inoiz fida uniforme daraman jendeaz"; eta Argentinako historia osoo badu amak bere aholkua oinarritzeko) galerazten dit militarrek bapatean "legal" bihurtu direla pentsatzea. Zergatik orain? (hauteskundeetarako bi aste falta direlako?). Zeren atzetik dabilta?

Onartu dute gehiegikeriak ("excesos") egon zirela. Dena aitortzeko eta onartzeko prest baldin badaude, zergatik ez dute oraindik esan "Gerra zikin" famatu hori Estatu Batuetako laguntzaz diseinatu izan zela? Videla general ospetsuak parte hartu zuela "Ameriketako armaden XI. konferentzian"? Konferentzia hori, 1975eko azaroan (kolpe militarra izan aurretik) ospatu zen, Estatu Batuetako Pentagonoak antolatuta. Han Videlak deklaratu zuen: "behar dirren pertsonak hil beharko dira, Argentinan berriro bakea nagusi izateko".

Bahiketak, hilketak bazirela ere denok genekien. Hilotzak hondartzetan agertzen zirenean, inori galdetu gabe ere, denok genekien nondik zetozen. Eta Argentinako gehiengoak isilik geratu ginen, ez ikusiarena, ez jakinarena... ostrukarena eginez. Egia da.

Baina Estatu Batuetako gobernuak ere bazekien. Honek bulztatu eta babestutakoa baitzen.

Nora PALMITANO



Diru kontuak

Ustelkeria, diru beltza eta antzerako gaietaz hitzegiten dugunean, beste zenbait alderdi ahaztu gabe, gehienetan bankueta-tako kontu korranteak ikertu beharrari buruz jarduten dugu.

Jakina da garai batean "secreto bancario" delako arauaren babespean legez kanpoko hainbat diru kopuruk bapo "lo" egin duela. Hau da, isiltasuna ezaugarri nagusi bilakatuz ez zegoen diru horien kopurua eta gainontzeko ezaugarriak aztertzerik. Beraz, ez zuten inolako oztoporik aurkitzen.

Geroztik administrazioari zegokion ikerketa boterea sartzen joan zen. Bigarren momentu honetatik aurrera kontu korrante mugimenduak, txeke edo gisa honetako ordain aginduen berri iker-tzea eta, azken finean, ezagutzea zilegi bilakatuko da. Hala ere, adituek neurri hau ez zela nahikoa zioten.

Ez da soilik mugimenduen berri izan behar. Alegia, kontu korrante, txeke eta gainontzeko kasuetan agerian gelditzen diren kantitate zehatzak ezagutzearekin ez dugula arazoa konpontzen. Serioski fiskalizazio edo jarraipen lanak gorpuzteko aipaturiko diruen jatorria eta norabidea ere aztertzeak aukera egon beharko litzateke. Horixe baita egiazko aurrerakuntza. Hirugarren maila honek, berriz, oztopo artean murgildurik jarraitzen du, konkretuki joan zen udan Konstituzio Epaitegiak aipaturiko jarrera Espainiako Konstituzioaren aurka (18.1 artikuluan jasotzen den intimitate eskubidearen kontra) zihoala erabaki zuen. Honen ondorioz, diruen norabidea edo jatorria aztertzeak asmoz osa zitekeen edozein ikerketa ekintzaren aurrean pertsona ikertua ez zegoen inolako informazio edo agiririk aurkeztera behartua.

Dena den, azalduko egoera bukatzeaz dugu zeren eta zerga mailako legeria orokorraren aldaketaren barnean hemen gorai-patu dugun aldaketa barnean kokatu dute.

Sabin ZABALETA

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behe
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behe
☎ 76 21 65 / 76 24 45



Hipólito Poza Zubillagako Suhiltzaileen Parkeko sargentoa.

Suhiltzaile boluntarioen erakustaldia

Hipólito Poza Zubillagako Suhiltzaileen Parkeko sargentoa bergararra izan da asteartean aurkeztu zen boluntarioen taldea zuzendu duena. Bere agindutara 16 gazte (tartean **Antxon Sasiain** bergararra) izan dira azken 6 hilabeteetan arriskuari eta egoera larrienei nola aurre egin ikasten eta hemendik aurrera, profesionalekin batera, ikasitakoa praktikan jarri beharko dute. 16 boluntarioak 4 lagunez osatutako lau taldetan banatuko dira eta talde bat behintzat lokalizatuta egon beharko da "busca" aparailuen bidez nonbait jardun beharra suertatzen denerako. Asteartean behintzat ondo prestatuta daudela argi utzi zuten boluntarioek eta Zubillagan bildutakoei beren trebezia erakutsi zieten prestatutako arrisku simulakroetan.

Pisako dorrearen antzera

Argazkia ez dago okertuta ez. **Labegarrietako Kirolddegiko** saskibaloia saskietako bat argazkian ikus dezakezuen egoera kaskarrean aurkitzen da. Saskibaloian jolastu nahi dutenek honelako saski batekin oraindik trebezia gehiago erakutsi behar dutela alde batera lagata, saskiak izan dezakeen arriskua azpimarratu nahi genuke. Istripu larriren bat gertatu baino lehen (gogoratu orain bi aste Donostiako mutil batekin gertatutakoa), dagokionari saskia konpontzea eskatu nahi genioke, kirol instalakuntza guztiak egoera onean egon eta herriko kirolariek sustorik izateko arriskurik izan ez dezaten. Ea ba!!



Zutik dagoen arren, gero eta okertuago aurkitzen da saskia eta saskibaloian jokatzeo egoera kaskarrean egoteaz gain, inguru horretan ibiltzen den jendearentzat oso arriskutsua da.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

GALLASTEGI
Jostundegia

mahoizko lanerako
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85



3. Munduari laguntza

3. Munduari laguntza emateko astean 200.000 pezeta inguru batu zituen **Antzuolako Herri Eskolak**. Irailetik hona eta 6. mailakoek bultzatuta, bertako ikasleak gai hori lantzen aritu dira eta antolatutako erakusketa, azoka, antzerkia edota jaialdiari esker hasieran pentsatutakoa baino diru gehiago lortu dute. Ikasleek bultzatutakoa izan denez, jasotakoa ere gazteei zuzentzea erabaki dute eta, horrela, Angela Da Silva, Gasteizen izan den brasildarraren bitartez Brasilgo kaleko umeentzako bideratuko da laguntza. Ea antzuolarren lana brasildarren egoera hobetzeko baliogarri izaten den...

Zertan dihardute ba?



Txaro Zabala izango da Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkartearen presidente berria. Elkarteko bultzatzaileetarikoa bat da eta orain dela 25 urte elkarte sortu zenean lehen presidentea izan zen. Berarekin batera honako lagun hauek izango dira Zuzendaritza Batzordean: Nieves Goirizelaia (idazkaria), Antolín Marchena (idazkariordea), Mari Tere Bergara (diruzaina) eta bokalak, berriz, Iosu Ugalde, Aureliano Terán, Ugutz Basauri eta Gorka Elorza. Gaur egun 80 bat bazkide dira elkartean eta asmo nagusia gazteen artean zigilu eta diru kolekzionismoa indartzea da. Hortarako bideo emanaldiak, hitzaldiak edota material bana-keta egin nahi dira.

Antzuolako Herri Eskolan 3. Munduari laguntza emateko astean antolatu da, ikastetxeko 6. mailako haurrek bultzatuta. Hainbat ekitaldi antolatu dira, haurrek eskolan landutako eskulanen erakusketa edota jaialdia, esate baterako.



REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Siaska

Dena zure
Inaurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Nartxi Azkargorta

Taun-Taun sortu zenetik bertako partaidea dugu Nartxi Azkargorta (32 urte).

Manipuladore lanak egiteaz gain txotxongiloak ere berak egiten ditu eta, bere kalkuluaren arabera, 100 bat egin ditu Taun-Taun zein beste talde batzuentzat.

- Zergatik helduentzako txotxongiloak?

- Gu bezalako jendeari zuzentzea nahi genuelako.

- Zer behar da titiritero izateko?

- Moral handia.

- Laneko gauzarik onena eta txarrena?

- Onena alderdi kreatiboa, txarrena ekonomikoa.

- Taun-Taunen lanik onena?

- "Bi kate" gustatzen zait gehien.

- Eta zein pertsoniarekin identifikatzen zara gehien?

- "Bi kate"ko Alfonsorekin.

- Umorea ezinbestekoa al da?

- Ez, baina oso ondo dator.

- Umore beltza ala zuria?

- Beltza.

- Umorista bat?

- Rowan Atkinson ("Mr. Bean").

- Egunkarietako komiki tira bat?



"Gu bezalako jendeari zuzentzearen ekin genien helduentzako txotxongiloak. Umore beltza dut gustokoen eta Taun-Taunen lanetatik "Bi kate"rekin geratzen naiz. Marraztea asko gustatzen zait eta Walt Disney gogoko dut"

- EGINEKO LÓPEZ & PÉREZ.

- **Komiki pertsonaia bat?**

- Superlópez.

- **Gustokoen dituzun marrazki bizidunak?**

- Walt Disneyrenak.

- **Mafalda ala Bart Simpson?**

- Mafalda.

- **"Teleñeko" etako zeinekin gelditzen zara?**

- Orkestako saxofonistarekin.

- **Zein politikori egingo zenioke txotxongilo bat?**

- Politikoak ez ditut gustoko.

- **Zein istorio gustatuko litzaizuke txotxongiloetara egokitzea?**

- Franklinen "Ideas negras" komikia.

- **Ikusitako azken antzerki lana?**

- "No hay narices", Eibarren.

- **Kritikari zenbateko garrantzia ematen diozu?**

- 1etik 10era 5.

- **Non izan duzue harrerarik onena?**

- Venezuelan.

- **Txotxongilo lanik onenak nongoak?**

- Ekialdean tradizio asko dago baina Frantzia ikusi ditut lanik onenak.

- **Hobby bat?**

- Marraztea.

- **Zerk beldurtzen zaitu?**

- Biolentziak.

- **Jaialdiko zein lan gomendatzen diguzu bereziki?**

- "Concertino".

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

BATXILERGO OROKORRA (14-16 urte)

eta

LANBIDE HEZIKETA (Sanitarioa)

Izena emateko epea irekita

IDAZKARITZA ESKOLA ORDUETAN IREKIRIK DUZUE

Bidekurutzeta z/g ☎ 76 25 40



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Barrenkalen. Prezioan ados jarri gaitzke. ☎ 76 31 79.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondón). ☎ 76 63 65.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Oxirondo enparantzan. ☎ 76 47 67.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

DENETARIK

Mobylette motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 59 15.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Volkswagen "kakalardoa" salgai. IAT pasatu berria. ☎ (94) 673 01 22.

Sukalde eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 79 01 66 (Aran).

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

Mobiyette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Estrainatu gabeko **kotxeko** **bateria** salgai. 80 anperio. Prezioa: 9.500 pezeta. ☎ 76 35 10.

Volkswagen Polo GTI (SS-AJ) kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 38 72 (Asier).

Opel Corsa TR kotxea salgai. SS-V matrikula. ☎ 76 55 50.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 61 93 14 (gauzez).

LANA

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingelesa, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Zuzendaritza **Idazkaritza** ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

TABERNA ZAHARRA*Jatetxea*

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

EDEL TAPIZDENDA

*Etxerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

ERAKUSKETA BINGEN DE PEDROren ikasleak

NAHIKARI Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Iker Unamuno

Iker Unamunok jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzuna: **Lasturrieta (Lasturritta)**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Iker Unamunori** eman dizkiogu. Zorionak!!

XX. mendeko hasieratik orain dela gutxira arte martxan izan ditugun zerrajerako Labegaraietako lursailak zertarako erabiliko dira aurrerantzean?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



komentarioa

Kopa partiduak zirela eta Ligako play offek atsedenditxo bat hartu dute. Baina asteburuan ekingo zaie kanporaketei Errotagain-Angiozar, Madura-Bildurbarek eta Kabia-Ozaeta partiduekin. Aurrez begiratur Errotagain eta Madura dira faborito nagusiak eta beste partiduan, Labegaraietako jaiak izango dute eraginik, bi taldeak ere auzo horretakoak baitira.

Kopari dagokionez Ufalak eta Los Txupetak aurrera egin zuten OH Zerezos eta Pikapiedrasen aurka.

Asteburuko karteldegia begiratur

Etxenagusiak eta Errotagainek jokatu dutena da dudarik gabe interesgarriena.


Orain arte bi taldeak izan baitira futbolic onena egin dutenak. Beste partiduetan angiozartarren arteko derbi interesgarria ere dago jokoan. Gazteak, Pagomendikoak, "beteranoen" Angiozarren, orain arteko nagusitasuna saiatuko dira apurtzen. Azkenik Mongatxurakoek egindako erreklamazioek ez dute ezertarako balio izan eta irabazi arren, kopa txapelketari agur esan behar izan diote. Neskei dagokionez orain arte hiru partidu jokatu dira bakarrik eta oraindik ez dago argi sailkapena.



Los Txupeta taldeak 6 eta 2 irabazi zion Pikapiedrasi kopian.

Nesken txapelketako partiduak larunbat eta astelehenean

Larunbat eta astelehen arratsaldean nesken txapelketako bigarren jardunaldiko partiduak jokatu dira Institutuko patioan. Astelehenean, 16.00etan, Push Team eta Burnidezko Damak taldeek jokatu dute elkarren kontra. Ondoren, beste bi partidu hauek jokatu dira: Ura pa los peses-The Best of The Best (17.15) eta The Blue Sisters-Sinatrak (18.30)



Ubinstik eta The Best of The Best taldeek hiruna berdindu zuten.

▼ emaitzak

KOPA TXAPELKETA

OH Zerezos-Ufala 2 - 2
Los Txupeta-Pikapiedras .. 6 - 2

NESKEN TXAPELKETA

Sinatrak-Push Team 0 - 1
Burdinezko D-The Blue S .. 1 - 1
Ubinsti-The Best of. 3 - 3

▼ partiduak

KOPA TXAPELKETA

LARUNBATA

9:00: Arloteak-Soropotroak
Antolaketa Batzordea

ASTELEHENA

16:00: Angiozar-Pagomendi
Errotagain

17:00: Etxenagusia-Errotagain
Ogizun

18:00: Ogizun-Nahikari Hoolligans
Etxenagusia

LIGAKO PLAY-OFFAK

IGANDEA

16:00: Errotagain-Angiozar
Antolaketa Batzordea

17:00: Madura-Bildurbarek
Antolaketa Batzordea

18:00: Kabia-Ozaeta
Antolaketa Batzordea

NESKEN TXAPELKETA

LARUNBATA

12:00: The Best of.-Etxakiñat

16:00: Ubinsti-Ura pa los peses

17:15: Sinatrab-Burdinezko Damak

18:30: Push Team-The Blue S.

ASTELEHENA

Beste hiru partidu

Simon
Arrieta, 3

Gorka

**OINETAKOEN
KONPONKETA**

Mota guztietako
konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

◆ Igeriketa

Larunbatean eta igandean goizeko 10etatik aurrera Gipuzkoako Nagusien Igeriketa txapelketak jokatu dira Agorrosinen. Bergararik Andoitz Gallastegi, Juan de Borja, Jon Jauregi, Gorka González, Nora Olabide eta Agurtzane Crespo arituko dira.

◆ Txirrindularitza

Igandean goizeko 10etatik aurrera XXXIII. Labegarietako ziklismo saria jokatu da 2. urteko kadeteentzat. Bergararik Lokatza elkarteke Caravanas Oñate taldeko 8 txirrindularik hartuko dute parte.

◆ Gimnasia

Larunbatean eguerdiko ordubietatik aurrera Labegarietako kiroldegian eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketa izango da. Ondoren, arratsaldeko 7etan, estatu mailan jokatzen den Koparako sailkapenak jokatu dira, Gizpuzkoatik, Arabatik eta Bizkaitik etorritako kirolariek. Kopan parte hartzeko toki bat dago bakarrik eta hori eskuratzen saiatuko dira Amaia Arrieta, Ana Sebal eta Amaia Ortiz de Urbina bergararrak.

Ur azpian ibiltzeko ikastaroan 28 lagun

Kirol Zerbitzuak antolatu hil osoan zehar El-goibarko Ur Bizi taldeko kideak ur azpian ibiltzeko ikastaroa ematen aritu dira.

Guztira 28 pertsonak eman dute izena larunbat goizetan Agorrosingo igerilekuetan ur azpian ibiltzen ikasteko. *"Ikastaroa ur azpian ibiltzeko hasierako pausua da. Halere, nabikoa ikasten da eta jendeari gustatzen bazaio beste ikastaro bat egiten du"* adierazi digu Jabier Ferreiro Ur Bizi taldeko kideak.

Ur azpian oxigeno bonbonarekin ibiltzeko derrigorrez 16 urte beteak izateaz gain, izar bateko titulazioa ere izan behar da. *"Kirol hau ez da bain gogorra, hasi baino lehen azterketa medikoa egin behar da, birrikak eta belarriak nola dauden aztertzeko"* dio Ferreirok. Ikastaroan igerilekuetan ibiltzen diren arren, urpekariek itsasoa dute habitat nagusia eta horretarako toki aproposak daude gure kostaldean. *"Itziarretik Lekeitiora ibiltzen gara gehien bat. Halere Donostia inguruan ere leku*



28 lagun biltzen dira larunbatero Agorrosingo igerilekuetan urpean ibiltzen ikasteko antolatutako den ikastaroan.

aproposak daude. Kirol bonen bitartez ur azpiko oso leku politak ikusi daitezke. Bertako fauna ere ikusgarria da" esan digu Ferreirok.

Ur azpiko ekipo batek, 200.000 pzta

Baina ur azpian ibiltzeko beharrezkoa da uretara sartu baino lehen kirola ondo menperatzea. *"Kirol guztiak dira arriskutsuak, ondo eza-gutu behar dira dauden arriskuak. Beti kontuz ibili behar zara. Botilarekin jardutean bi dira*

istripurik nagusienak: deskonpresioagatik sortutakoak eta biriketako gainpresioak eragindakoak".

Ur azpian ibiltzeko ekipo on batek, aleta, betaurreko, botila, erreguladore eta jantzi batek alegia, 200.000 pzta balio dezake, *"baina normalean jendeak jantzia, aletak eta betaurrekoak erosten ditu eta bonbona eta erreguladorea elkarrean izaten dira. Urtero 5000 pztako kuota ordaintzen dugu eta hortik ateratzen dugu dirua"* diosku Ferreirok.

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

KARTELDEGIA

► **Futbola****Bergara-Lazako**

Preferente maila.

Igandea, 17.00. Agorrosin.

Bergara-Allerru

Lehen Errejonala.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

Bergara-Mariño

2. mailako jubenilak.

Larunbata, 15.30. Ipintza.

Bergara-Antiguoko

Lehen mailako infantilak.

Igandea, 11.30. Ipintza.

► **Eskubaloia****Bergara-Urola**

Kadete mutilak.

Igandea, 12.15.

Bergara-Aloña Mendi

Jubenil neskek.

Astelehena, 9.45.

Bergara-Urrietako

Kadete neskek.

Astelehena, 11.00.

Bergara-Bizkor

Senior mutilak.

Astelehena, 12.30.

Labegaraieta kiroldegian.

► **Saskibaloia****Bergara-Laskorain**

Jubenil neskek.

Larunbata, 12.00.

Labegaraieta kiroldegian.

► **Pelota****AFIZIONATUAK****Bergara-Hernani**

Herri arteko txapelketako

itzulerako partiduak.

Ostirala, 22.00.

Udal Pelotalekuan.

Bergara-Elgeta

Deba Arroko txapelketa.

Asteazkena, 21.00.

Udal Pelotalekua.

Martin Arriaran

Xakean buru belarri

Martin Arriaran 30 urteko xake jokalaria da eta 15 urte daramatza buru belarri xakearen munduan. Duela gutxi Donostian jokotutako Openean emaitza ezin hobekak lortu ditu mailaz igotzeko lasterketan.

- Zela ikusi duzu zure burua Donostiako Openean?

- Nire helburua Nazioarteko Rankingean sartzea da eta horretarako nazioarteko mailako bi txapelketatan puntuak atera behar dituzu. Donostian helburua bete dut eta orain, abuztuan, Oloteko txapelketan jokatuko dut. Puntuak ateratzen baditut Nazioarteko Rankingean sartuko naiz.

- Horrek zer suposatzen du?

- Orain txapelketatan jokatzeko ez dut inongo laguntzarik. Baina mailaz igotzen badut Txapelketatan jokatzeko ez dut ordaindu beharko eta beste askotan gonbidatu bezala joango naiz.

- Gaur egun xaketik bizi al zara?

- Xake xaketik ez. Baina bai berarekin zerikusia duten ekintzekin. Klaseak direla etab. Egunero zortzi ordu inguru ematen ditut entrenatzen eta halere gutxi dira.

- Bergara mailan ze moduz dago xakea?

- Bi talde daude, Bergara Xake taldea eta Zaleak taldea. Ni lehenengoan nabil eta Gipuzkoako taldekako lehen mailan gabiltza. Azken urtee-

tan jende gaztea dabil xakean jokatzeko eta gainera gaitasuna dutenak. Lehen, aldiz, ez zegoen orain daukagun maila.

- Xake klaseak ematen dituzu. Nola egiten da kirol hau erakargarri gazteentzat?

- Suspergarri batzuk jartzen dizkiet. Ikastaroa bukatutakoan txapelketak antolatzen ditugu eta dominaren bat irabazten duena, ziur hurrengoan ere etorriko dela.

- Nola ikasi duzu xakean jokatzeko?

- Beti nire kontura ibili naiz. Liburu pila bat daukat. Seguruenik Gi-

puzkoan xakeari buruz dagoen liburutegirik onena izango dut. Ziur ezin dezaket esan baina guztira 600 bat liburu izango ditut.

- Ze xakelari da gehien gustatzen zaizuna?

- Jende gaztea irtetzen ari da. Hor daude Adnan indiarra eta Kamsky errusiarra oso onak direnak. Baina oraindik K bikoitzak, Karpov eta Kasparov, dira onenak, azken honi dirua gehiegi gustatzen zaion arren. Interesgarria izango litzateke xakearentzat berriz elkarren aurka jokatzeko.



Egunero zortzi ordu sartzen ditu xakean jokatzeko.

"Xakeari buruzko 600 liburu ditut. Gipuzkoan ez da egongo hainbeste duenik"



Maietzan bata

Maietzan batian Altos Hornosko jaixak die, baiña juergarako denporia eukitziaz gain, urte osuan bertako elizan kantuan ibiltzen zan korua aurkezten dotsugu. Altos Hornosko domeketako mezatan kantuan eitten zeban kuadrilla honek. Erretratu 1975ekua da.


1. illaran: Mirari Lazkano, Ane Agirreolea, Marian Umerez, Olatz Agirreolea, Mirian Zabala, German Zenitagoia, Gema Zenitagoia, Josune Azula, Miren Azkarate.

2. illaran: Jabier Zenitagoia, M. Jesus Unamuno, Kontxi Osinalde, Esther Ruiz de L., Arantzazu Loidi, M. Karmen Aranzabal.

3. illaran: Santos Gorria, Alberto Aranzabal, Belen Abarzuza (Zuzendarixa), Ane Miren Zenitagoia, Kontxi Laskurain, Jaione Larrañaga, Iruñe Zangitu.

Atze-atzian: Jesus Zapata, Kari Zabala, Migel Al tuna.

Gaiñera, Korukuei Zerrajeran pixkolabiz bat emoten zotsen gabonetan eta 1928xan lantegixan txapako labia eitten ziharduenian zela zauan ikusi deizuen, erretratu hau laga doskue. Izenak ezagutzen ez dittugun arren hor dihoiakizue kuriosidade moduan..



Argazkia: Angel Gallego

Testua: Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua
LOKARTU
 Koltxoi-denda
 Orain SORALUZEN

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

ZUBIETA
 elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

EZAGUTU!!



**Integrée Medical Point-en
abantailak LILURA Edertze
Institutuan**

Guadalupe García, zuzendariak, informatuko zaitu, inolako konpromezurik gabe

***INTEGRÉEn, zirujia estetikoaren
teknikarik aurreratuenak garatzen dira,
dermoestetizistaren laguntzaz***



◀ Lipoeskultura ultrasonikoa eta liposukzioa, eta masaia drenantea.

▶ Aurpegi eta lepoko lifting osoa, eta aplikazio kosmetologikoa eta masaia.



▶ Bularrak haunditzeko kirurgia-ebakuntza gehi azalaren tonifikazioa, aplikazio kosmetologiko berezituarekin.

***SOLARIUMerako eskaintza bereziak:
Udaberri eta udan ERDIPREZIOAN!!
Bisita gaitzazu eta informatuko zaitugu***

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.
Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.